

Joxe Mari taberna, auzoko saltsa

Urte askoan bertan lan egin zuen Feli Gabarainekin egon gara. 95 urte ditu eta bizipen gazi-gozo ugari

HELENE ARMENTIA ARTZAK

baetako taberna ezagunetako bat izan zen Joxe Mari izeneko, hainbat pasadizo eta parranda izan ziren bertan, irekita egon zen bitartean. Urte askoan tabernan lan egin zuen Feli Gabarainekin izan gara Joxe Mari tabernaz hitz egiteko, baita aurretik bizi izan zehar bizi izandakoez ere.

1920ean jaio zen Feli Matia kalean, baina sei urte zituela Parte Zaharreko kale Nagusira joan zen Gabarain Beraza familia. 95 urte ditu, beraz, Feli, eta bizipen gazi-gozoak pasa ditu urte hauetan zehar.

Gerra garaian pasatakoak kontatu dizkigu, hasteko. 16 urte zituen Gerra Zibila hasi eta Donostiatic alde egin behar izan zuten. Aita gerran gertaio-kontuetan zebilela, amak lau seme-alabak hartu eta hil-bizira joan ziren. Joxe Mari, Feli izenik, baina ardean izen zuten Sautandier aldera eta Asturiaseko gero. Azkenean, Lyonera iritsi ziren. Prantzia urte eta erdiz bizi ondoren, Bartzelonako Molins de Rei herriko babesleku batera eraman zituzten ama eta hiru seme-alaba zaharrenak, baina anaia gazteena, Pedro, 'haurren kolonia' batera. Han 'galdu' zuten Pedro. Nonbait, Euskal Herria bueltatzeko agindua jaso zutenen, 'koloniakoak' lehenago aterata ziren Barzelonarantz, Pedro haiekin zela eta bazter guztietan galdezka eta bila ibili arren, ez zuten denbora luzean aurkitu; izan ere, hiru urte geroago agertu zen Pedro Donostiako 'Miserikordian', hazteriak jota. Kurioso izan zen: aita, mekanikoa, 'Mi-



Joxe Mari eta Feli, barra atzean.



Familia eta lagun koadrilaren bilgune.

serikordiako' garbigailuak konpontzen joaten zen bertara, eta ez zekien semea han zegoenik. Bergarako familia batek zaindu zuen hiru

urte haietan; haienganako esker ona adierazi digu Feli, garai hartako zailtasunak kontuan izanda, ama hark, beste bi seme-alaba elikatzeaz



Feli lan eta lan, denok ezagutu zuten moduan, sukaldean.



Frontoian burutu zen inaugurazio-ekitaldian.

gain, Pedro ere zaindu zuelako.

Mekaniko ona zen Raimundo, eta berritzailea, inondik ere. Garai hartan Feli, Pakita, Manolo eta Pedro

seme-alabentzako garbigailu 'semi-automatik' bana egin baitzuen; seguru asko Donostiako lehenengotakoak. Azpimarragarria, halaber,

ESTHER MUJICA
Peluquera Estilista
Paseo Errotaburu 4 - 20018 DONOSTIA
Tel. 943 223 651 - esthermujica@hotmail.es

Talleres BERAZA
REPARACIÓN DE AUTOMÓVILES EN GENERAL
Abierto de 7.30h. en adelante
Av. Zarautz, 111 - DONOSTIA
Tel. 943 214 047

PLASTIKAS
recaparatismo
charo irizar • patxi irizar
Tel. 943 21 83 85 • donostia

akaimo
Pokoandegi bidea, 26 bajo
20018 Igara - Donostia
Tel/Fax 943 312 351
Móvil 629 404 151
akaimo@terra.es
akaimo@hotmail.com
carpinteria

Trikut Harri
Laparra, 14/15
TEL 943 246 973
MATIA KALEA 35, ANTIGUA, DONOSTIA

KAFETEGIA
Apertura 7.00 am
Desayunos
Bocatas
Sandwiches
Platos combinados
Plato del día
TV - Terraza
Avda. Tolosa 111 - DONOSTIA - Tel. 943 21 33 58

elkar
Kultura eta aisialdian aukera
zabalena zure liburu-denda sarean

BAR TXOKITO JATETXEA
MENÚ - CARTA - BOCADILLOS - ESPECIALIDADES
Plaza Karlos Santamaria, 1 - DONOSTIA - 943 014 221

BONI ALDAYA
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.
Avda. Tolosa, 103 - 20018 San Sebastián
Tels. 943 215 700 - 943 213 337 Fax 943 213 474
administracion@bonialdaya.com
probador@bonialdaya.com
sinistros@bonialdaya.com

DONOSTIA KULTURA
LUGARITZ
KULTUR ETXEA

ERROTA BERRI
Club Errota Berri
Barrio de Igara
Cº de Igara, 127
Tels. 943 213 103
943 210 249
IBAETA - 20009 SAN SEBASTIÁN

PERSIANAS FIDEL MÚGICA
Av. Zarautz, 55 - SAN SEBASTIÁN
Tel. 943 210 291

Donostia Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Ibaetako taberna ezagunenetako bat izan zen, dudarik gabe, Joxe Mari.

garbigailuen 'danborrak' egurrezkoak zirela eta Feliren senarrak, Joxe Mari Zubizarretak, egin zituela. Lanbidez, ebanista zen Joxe Mari.

Sagardotegia, aurretik

Aratz parean dagoen Ilarra Berriren etxabeaz zegoen Joxe Mari taberna, gaur egun Ilarra Berri elkartearen dagoen lekuan, hain justu ere. Taberna izan aurretik, ordea, sagardotegia izan zen; Joxe Mariaren familiaren sagardotegia. Garai batean oso ezaguna izan zen, eta sagardo-garaiaren donostiarren etxuz joaten omen ziren beren kaxuelekin, entsalada eskatu eta sagardoa edatera.

Joxe Mari eta Felik igeldon eza-

gutu zuten elkar; bitxia da: orduan, asteen hirutan izaten omen zen dantza igeldon! 1944an ezkondu eta Feli sagardotegian hasi zen laguntzen. Baina handik urte batzuetara Joxe Mari eta berak negozioa hartu zuten eta sagardotegia taberna eta jatetxe bihurtu zuten. Mugimendu handia zegoen Joxe Mari, aste barruan auzoko jendea eta langileak izaten zituzten eta asteburuetan kanpokoak, nagusiki; tartean Donostiako arrantzaleak ere bai, Feliren aitak tailerra Donostiako moilan izan zuelako.

Menua ematen zuten tabernan, baina enkargu bereziak ere jasotzen zituzten jateko, astoak eta katuak.

besteak beste. Gogoan du Lautxime-netako asto bat ekarri ziotenekoa, edo katua inoiz jango ez zuela zioen gazteak katu-gisatua oso gustura jan zutenekoa, erbia zelakoa. Barrezka kon-tatu digu Felik gaztearen kuadrilla-koek enkargatu ziotela katu-gisatua eta jaten ari ziren bitartean kuadrilla-koak 'miau-miau' esaten hasi zirela eta botaka egitera joan zela gaztea. Hasieran, tabernan sagardoa baka-rik ematen zenean, Joxe Mari ebanis-ta-lanetan aritzen zen eta tarteka ta-bernan laguntzen, baina gero erreme-dionik gabe, ebanista-lana utzi eta ta-bernan buru-belarri hasi zen Felirekin.

Esan bezala, une latzak pasa ditu Felik, baina baita atseginak ere. Lan asko egin duela esan digu, baina dis-frutatu ere asko egin omen du. La-gun-kuadrilla ona zuten Joxe Mari eta Felik, igandero joaten omen zi-ren tabernara. Eta Inauterietan, ta-bernako lanak bukatzean, goizeko ordu bata aldera edo, bulebarrera joa-ten ziren moztarrotuta. Han goizal-dera arte parranda egiten zuten eta besteak ohera joatean beraiek lanera itzultzen ziren. Mozomako Felik egi-ten zituen aldizkarietatik 'ereduak' aterata. Denetarik egiten zuten Felik! Danborrada ere biziki ospatzen

zuten denek, baita familiakoek ere. Horren harira, aipatu digu Joxe Ma-riren izeba Luisak sortu zuela auzo-ko danborrada; berak josi omen zi-tuen lehen danborradako jantzi guz-tiak eta handik aurrera, urtero plantxatzen zituen jantzi guztiak Luisak. Oraindik ere, Ibaetako dan-borradak Luisaren etxe azpian jo-zen du martxa urtero bere omenez.

Kantatzera ere gustuko du Felik, eta Groseko abesbatza bateko kideak etortzen omen ziren asteen behin ja-tetxera eta beraiekin kantatzen zuten.

Auzoko lehenengo telebista ere beraiek izan zuten eta auzo guztia joaten omen zen Joxe Mari tele-bista ikustera.

Baina, «lana bai, baina oporrak ere bai», esan digu Felik. Abuztuaren inguruko negozioek itxi egiten zu-ten eta orduan oporretara joaten zi-ren. Behin, etxeko txakurra Ma-rrutxipiko egoitza batera eraman zuten, oporretara zihoazen bitar-tean zaindu zezaten, eta Marrutxi-pitik ihes egin eta bueltan etorri zen Ibaetaraino, beraiek kanpoan zeu-den bitartean.

Festei buruz galdetu diogu Feliri, eta jende asko biltzen zela esan digu, «mundu bata». Beraiek 'tokadiskoa' jartzen zuten tabernan eta aldame-nean zuten frontoian dantzatzen zuten jendeak. Izan ere, frontoia zegoen Joxe Mari tabernaren atzealdean. Fronti-sa erori zitzaion baten eta berriro egin behar izan zuten. Inaugurazio-ekital-dia eta guzti egin zuten. Oraindik ere frontoi puska bat geratzen da etxe-aren atzealdeko frontoian.

Zubizarretarrak, familia zabala eta oso ezaguna auzoan

Joxe Mariaren familiari buruz gal-detu diogu Feliri, auzoko Zubi-zarretarrei buruz eta bederatzi senide izan zirela esan digu: Joa-kin, Joxe, Pilar, Dolores, Maria, Inaxi, Luisa, Joxepa eta Joxe Mari.

Joakin, Joxe Mariarekin ebanis-ta-lanetan ibilia, Gregoria Sala-

berriarekin ezkondu zen eta Jo-xepa Joxe Mari Lazkanorekin. Pilar Gregorio Etxeberriarekin ezkondu eta Ferrene Azpin bizi izan ziren (Elbi-etxe deitzen zio-ten, aldameneko zabor-biltegia-gatik euli asko zegoelako). Bi ala-ba izan zituzten: Miren eta Ma-ria Luisa. Dolores, berriaz, Ma-nuel Garmendiarekin ezkondu zen eta Isidro eta Ramon izan zi-tuzten. Luisa, bestalde, Miguel Labururekin ezkondu eta bi seme izan zituzten: Miguel eta Jose Luis. Joxek eta Mikaela



Ibarburuk Joakin eta Miguel se-meak izan zituzten. Azkenik, Mariak eta Julio Varela seme

bakarra izan zuten, Julio, eta hura izan zen Joxe Mari taberna hartu zuena 1970. urtean, Felik

eta Joxe Mari taberna utzi zu-tenean. Eta Juliok utzi zuenean, Joxe Mari taberna elkarre bihur-tu eta, orduan ere, auzoko jen-dea ibiltzen da bertan, baita fes-tetan ere!

Familia zabala osatu zuten Zubizarretarrek eta gehienak Ibaetan bizi izan dira, baita be-raien seme-alaba, suhi eta errai-nak ere, horien artean aipatu nahi ditugu duela gutxi zendu eta festetan ere gogoan izango ditugun Pepi, Jose Luis eta Isi-dro.

mariaje
modo

avda. de zarautz, 109 • tel. 943 211 784
san sebastián

igara
PLATOS COCINADOS

Pokopandegi, 24-bajo 20019 San Sebastián
Tel./Fax 943 22 41 65
www.platoscocinadosigara.com

martin
DECORADORES

Avda. Zarautz, 124 20018 San Sebastián
Tel. 943 32 71 61 Fax 943 32 76 08
www.muebles-martin.com

helburuak lortzeko **GURE BALIABIDEAK**

naiz: GARA